



## SIMÓN ARRIETA

tinuo reflejado en sus lienzos, manchados con una musicalidad colorista cautivadora, hacia la estancia en su estudio grata y reposante. El embrujo de la ejecución cuidada y amorosa, ese misterioso atractivo que contiene todo lo elaborado con emoción, trascendía en sus lienzos de desiguales tamaños.

La tercera vez que tomé contacto con Simón Arrieta fue en su pueblo, en Vergara, poco antes de su muerte, con ocasión de la inauguración de las Salas Municipales con una exposición antológica del pintor Julián de Tella. Y he aquí que el joven tímido, que prefería ser ignorado, se ha convertido en una dinámica y entusiasta personalidad, que con corazón generoso, con raro desinterés, que al hombre de negocios le habría de parecer insensato, está empeñado en la tarea de propagar, de enseñar a los jóvenes, el mensaje y la disciplina del arte, arrastrando con su exaltada presión temperamental a unos y a otros dentro de su círculo inmediato y fuera de él. Se veía, se comprobaba, que la resonancia de su persona artística trascendía de su propia obra y se marcaba en el ambiente.

Todo artista, cuando la muerte le lleva silenciosamente, y más si su edad es temprana, puede considerarse malogrado. Porque el verdadero artista no tiene límites en su afán de creación.

En el caso de Simón Arrieta, quizás le quedó aún por hacer esa última cristalización, limitada y depurada, en las dos facetas clave de su obra: la figura, simbólica y presencial, y el paisaje amplio, de contenido sensiblemente afectivo.

Su figura entra de lleno y con todo derecho en la línea de los grandes nombres del arte de la pintura que el país vasco ha dado al mundo.

CARLOS RIBERA

# Simón Arrieta

## ARTISTA ETA GIZONA

Hasiera latak izan zituen Simonek. Asko kosta zitzaizkion bere lehen urratsak. Baina neke larri halek zerbait menderatu bezin azkar abiatu zan garrika; 1942-an Gipuzkoako "no-vel" saria eraman zuan. Orduan ezagutu zuan Zuloaga eta berakingo har-emanen baliatu zan kontseilu onak hartzera, berak barne-gogoz ekarren giroari lotarik, berekiko estilu batera joaz. Beti izan bait zuen kantuan inoren eskolara gehiegi ez hutsatzekoa, bere sorketeri bide bereziak arkitu nahirik.

1945-ean Parisen egin zuen egonaldi labur bat hango giroa ezagutzeko, eta 1949-an Madrilen jarri zuen bere estudioa. Espainiako hiri nagusi honetan egin zuen 1952-an erakusketa berezi bat, bere denborako abururik onenak jaso zituen exposizio hartan, eta, gainera, presentatu zituen lan guztiak saldu zituen. Hura zan Arrietak izan zuen ondorerik onena. Behar bada berak ez zien erantzan, jarraipenerako aukera hari, behar takean neurrian. Diruzko ondarenez gainera, lanerako zituen aukerak oso onak ziren, bere gogozko bidetik jarraiturik obra nagusiagoak burutzeko. Baina herri-minez etorri zan Bergarara. Famaren hasieran sorketeri txokoa sartu zen eta geroztiko erakusketak Bilbon eta Donostian bakarrik izan zituen. Ez zitzaion axolarik bere ospeak, eta ondarena eta arte bera trikiagoak izatea, baina bai bere herriaren muga barnetik bizitzek. Hala zen bere apaltasuna.

Askok pentsatuko dute, ia gure mugetatik irten da bere artea hobetzerik izango ote zuen. Baietz uste dugu. Kritika guztietara irikiago jartzek, berakin dakar Hobekuntza. Baina ez uste Arrietak hori etzekianik; bazekien eta aitortzen zuen; baina bere herriarekin eta bere herkidekin zerbitsuak izateak ere, bere gogorentzat ezer asko esan nahi zuen, eta artista-ten espiritu finak, eta bere bihotz sentipenak horrela eskatzen zuen. Alde horretatik bere nahiak ondo ase zituen. Bere personarentzat hobe zena utzi zuen bere herriaren hoberako. Gaur, Bergara eta Bergara inguruko artistak asko zer diote berari, Hauetariko asko gaur ez ziran izango artista beregatik izan ez balitz. Eskola sortzerainoko arte eragintza izan zan berea.

Ez zan inungo akademiatik igaro, eta behar bada horrek ere lagundu zion bere estilu berezian. Bere estilua estiluren batekin konparatzekotan, erromantikuen ondorenean agertu zan errealdismuko antzerakoa da, batez ere paisajejan; baina hori ere ez, zeren Arrietak asko zuen impresionistena ere bidez ere erretratuan. Ba dirudi bestera izan behar zuela, impresionisten tankera paisajejan eta errealdistena irudietan, baina ezta horrela. Bodegoiak eta paisajeak egiten bazituan ere, postamantiku-impresionismo tartez; erretratu eta konposizioa ziren bere gogozkoak, eta hauetan agertzen du bere barne-gogo guztia, bere artista donaita, bere emaitzarik hoberenak bertan ixuriaz.

Batez ere erretratuan egin ditu bere lanik onenak. Konposizioa, gogoko bazitzaion ere, askozaz gutxiago landu zuen; eta, hala ere, bere hurritasun horretan ere maiztasuna nabari zuen. Konposizio hoietako batzuek Bergarako udalotxean gelditzen zaizkigu, hormetan eginak.

Aipatu ditugun eskolen arte hoiek ongi aprobetxatzen zekien. Eta bide bakar bati gehiegi lotzeko, esan dugunez, lanera bere tankera berezia ematen zekien. Gainera, kolorez aberatsa eta oso garbia zan. Garbitasunak antz arduratzen zuen bere pintzela, transparentziak agiri arteraino. Horregatik ukatzen zuen beltza, eta lehen marok ere bioletaz egiten zituen. Guzti horrek ematen zion seilu berezia, eta seilu horrek berekiko indurra.

Erretratuan hain naharo ari zelako, bere gisa jardutzeko, konpromisuzko lanetatik libratzeko gogo bizia zuen, zenbait gai ainhari harturik bere gogozko konposizioak sortzeko. Baina etzuen lortu nahi zuen neurrian, eren hain handia zelarik bere erretratu lana, gehiegi lotzen zuan artistaren gogo. Horregatik, zaritxarrez, etzaigu gelditzen zuten barne-gogotik sorturiko lan gehiegitik. Azkenaldian, erretratu lanak hurriturik, gogo hutssezkoeri zerbait gehiago eskainiaz zijoan, Baina etzuen izan asmoetako lan handi hoiak burutzeko betarik. Hil baino lehen txokoago esaten zidan, naitz eta bizitzeko haina ez irabazi, jo-ta-ke hasi behar zala berekiko lanetan. Bere gazdun esacera: "Aspertuta naiz hainbeste zuhar zatat politoagoak egiten", artistarik gehienak bezala, batez ere bera betin gazte hiltzen diranean, bere asmuetako obrarik onenak egiteko helku zitzaion heriotza. Hala ere, bere gogo zaharo asetu ez bazuen ere, lan ederra eta ugaria utzi zigun.

Bere osorik onenean galdu genduen artista dugu Arrieta. Bergaran bertan joia zan 1915-eko otsailaren 9-an, eta berrogeita-hamailau urte betetzetik hiru egunera hil zan.

Simonegan arteik aparteko beste dohain asko ziran. Artista bezala hartu zuen maila amaika nekealdiren ondorena zan. Hutsetik, bakarrik, bere kabuz ariz lortutako maila. Maiz, bere aldez-garako neke larri hoiak, bere artea baino meritu handiagoeak idurtzen zaizkit. Artista askok izango zituzten beren nekeak, noski; baina gutxi, oso gutxi, bera bezin kondizio apaletik sortuak. Hutsetik hasi, bere barnea berekiko gogoretaz landu, artista espirituz jabetu, eta zalduaz gailendu, geroago artearen sorketatik aritzeko. Simon, gizon osoa zana, bere ekitzta guztian nabari zuen gizontasuna. Artista hobeagoak izango dira, noski. Gizonagoak, nekez.

JUAN SAN MARTIN